



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2004ko maiatzaren 27ko ohiko bilera**

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and. (1)
IU-EB.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
IU-EB.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EZ DA BERTARATU:

PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.

EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYÁ jn.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA and.

(1) 20:35ean joan egin da, 6. puntua aztertzeari ekin aurretik.

Leioako udaletxean, bi mila eta lauro
maiatzaren hogeita zazpiko iluntzeko zortziak
eta laurden direla, elizate honetako udalaren
osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko.
**Alkate-Udalburua, Karmelo Sáinz de la Maza
Arrola** jauna izan da bileraren burua eta
idazkariak, **M^a VICTORIA ERKIAGA
ARANGUENA** andreak, lagundu dio. Haiekin
batera, orriaren ertzean agertzen diren
zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza
zein eskubidez Udalbatza osatzen duten
kideen legezko gehiengoa osatzen dute.
Alkatetza-Udalburutzak aurretik egin die ohiko
bilera parte hartzeko deia, guztia Toki
Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren
2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan
ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c)
artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko
2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen
Tokiko Udalbatzen Antolakuntza,
Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari
buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan
xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo
deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du;
jarraian, ohiko bilera honetako eguneko
aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak
aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2004KO OTSAILAREN 26KO ETA 2004KO MARTXOAREN 25EKO OHIKO BILKUREN ETA 2004KO MAIATZAREN 18KO APARTEKO BILKURAREN AKTAK ONESTEA:

Izenburuan aipatutako bilkuretako aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, udalbatzaren
osoko bilkurak onesteko jarri dira.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, Osoko Bilkuran eta **aho batez**, 2004ko otsailaren 26ko eta martxoaren
25eko bileretako aktak onetsi ditu baita 2004ko maiatzaren 18ko aparteko bilerakoa ere.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

2.- HAPO ALDATZEKO ESPEDIENTEA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA; IZAN ERE, HAPON PINUETA HOBETZEKO PLAN BEREZIKO AURREIKUSPENAK SARTU NAHI DIRA. 2004ko maiatzaren 11n Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 365/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak 2004ko maiatzaren 5ean hartu zuen 73. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko zerbitzu teknikoek bilerara bertaratu diren zinegotzietan Pinueta auzoan ezarri nahi diren hirigintzako aldaketak 2 espedienteren gaiak direla jakinarazi diete.

- Hobetzeko Plan Berezia.
- Plangintzaren aldaketa, Plan Bereziaren aurreikuspenak sartu ahal izateko.

Plan Bereziaren inguruko erabakirik egokiena hartu ondoren, plangintza nagusia aldatu beharko da arau-hierarkiaren printzipioari eusteko. Hau da, 2 espediente aldi berean bideratuko dira baina behe-mailako gaiaren (Plan Berezia) onespina goi-mailakoa (Plangintza Nagusiaren aldaketa) onestearen baldintzapean jarriko da.

Hori dela eta, Plan Berezia onesteko izapidearekin batera, osoko bilkurak 2003-2-20an egin zuen bileran hartutako 6. erabakiaren bitartez, HAPO aldatzeko espedientea hasieran onetsi zen ere, espediente hori interesdunek alegazioak aurkezteko jendaurrean erakutsi ondoren.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak honako jarduerak egokiak direla erabaki du:

- HAPO aldatzeko espedientea osoko bilkurari bidaltzea, behin-behinean onetsi dezan.
- Espedientea behin-behinean onesteko agirian, xede horretarako Pinueta Hobetzeko Plan Berezirako onetsiko diren aurreikuspenak sartzea.

Talde politikoen iritzia eta irizpideei dagokienez, Pinueta Hobetzeko Plan Bereziari buruzko eztabaidari eutsiko zaio.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

2. eta 3. puntuen baterako erabakia proposatu du, bien artean antzeko arrazoia dago eta, bi puntuak bereiz bozkatzearen kalterik gabe.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak, honakoa adierazi du:

Hirigintza Batzordean adierazi duten bezala, Pinueta Hobetzeko Plan Bereziak hitz egiterik ez dagoela adierazi du, zertan geratu den kontuan hartuta. Alde hori egun horretan osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko ari dela ulertzea oso zaila egiten zaiela azaldu du,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

bere garaian aurkeztutako alegazioak eztabaidatu eta horiei buruzko irizpena emateko gai ez baitziren izan, ezta batzordean ere. Alde horretatik, uste dute azpiegituren (batez ere giza azpiegiturak edo auzoan gizakiak elkarrekin bizi izatea garatzeko azpiegiturak) beharraren gainean egiten ziren planteamenduak eta garai hartan proposatzen zutena ez direla antzekoak, eta alde horretatik, Plana txirotu dela uste dute, eraiki nahi diren partzelen kopurua txikia delako aurretik egindako bi aurreikuspenen aldean; halaber, aurreikusitako prezioa gehiegizkoa da; eta auzoa atzetik eta inguruan dituen lurrekin komunikatzeko azpiegitura ez da ezertan geratu momentuz. Alde horretatik, auzo osoa benetan hobetzearen alde egiten zen. Are gehiago, uste dute azpiestazioari buruzko aurrekontuetan bildutakoa bezalako aldeek auzorako itxaropen handiagoa zekartela; hala ere, uste dute horrek ez duela balio izango ezta printzipio gisa ere; eta horrek honakoa dakar bere talderako: alegazioak oinarri hartuta sar litezkeen hobekuntzek auzorako ekarriko luketenaren ilusioa galdu dute. Izan ere, oraingo planak ez du hobetzen garrantzitsuena auzoan. Ondorioz, burutu nahi denaren kontrari agertu gabe, abstenitu egingo dira, ezin baitute onartu hori Plan Berezia izatea.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaz jaunak, honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin, adierazi du poztu beharko lirakeela azkenean Pinueta auzoaren berrikuntza aurrera aterako dela. Beren ustez, berrikuntza hori behar-beharrezkoa da auzo osorako. Halaber, adierazi du, Iñaki Gomendiourrutia jaunak adierazi duen bezala, osoko bilkuran bozkatzeko den Plan Berezi horren izenak ez duela benetan islatzen Planaren edukia zertan den; izan ere, proposatzen dena Pinueta auzoaren oso gune zehatz baten berrikuntza da, eta ez auzo osoarena, hasierako asmoa hori izan arren.

Nolanahi ere, poztu behar direla esan du berriro, eztabaida eta azterketa luze baten ondoren, Pinueta Berritzeko Planaren zati bat, behintzat, aurrera aterako delako.

Jarraian, adierazi du tamalgarria dela hasieran aurreikusitako Plan osoa egun horretan onetsi ezin izatea eta plan horren zati garrantzitsu bat erdibidean geratu izana. Horretatik uste dute jada, Plana onetsi bezain laster, Gobernu Taldea eta beste talde guztiak lanean hasi beharko direla, auzoaren gainerako alderako irtenbide azkarra eta egokia bilatzeko.

Laburbilduz, uste dute auzoaren gune horrek onura aterako duela, lur azpiko aparkalekua eta kirol-instalazioa (kasu honetan, pilotalekua) duen jolas-lekua izango dituelako. Horrez gain, zalantzarik gabe Leioarako interesgarria den eraikin bat gaituko da, udalak erabil dezan.

Amaitzeko, adierazi du poztu behar direla, baina aldi berean deia egin behar dela, guztien artean lan egin eta auzoaren gainerako gunerako irtenbide azkarra bilatzeko.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak, honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin, alderdi sozialistak bi puntuen alde bozkatzeko duela adierazi du. Jarraian, hizketan gehiegi luzatu nahi ez duela azaldu du, bere garaian jada eztabaida izan zutelako Plan Berezia aurkeztu zenean. González andreak adierazi du alderdi sozialistak baino ez zuela ezetza eman, ez baitzitzaien gustatzen Pinuetarako Plan Berezia nola antolatuta zegoen. Hala ere, Pinueta auzorako beste modu batean antolatutako Plan Berezia egin behar zela azpimarratu zuten.

Jarraian adierazi du osoko bilkuran onetsiko dena Plan Berezia dela esatea gehiegizkoa dela, Iñaki Gomendiourrutia eta Xabier Olabarrieta jaunek esan duten bezala. Izan ere, Plan horrek aparkalekuaren arazoa baino ez du konponduko; pilotalekua eraikiko da, baina azken finean, ez ditu konponduko auzoak dauzkan arazoak.

Amaitzeko, pozik daudela esan du etxebizitzak eraikiko ez direlako, zenbait tokitan egitear zeuden husteak egingo ez direlako, eta puntu hau onartzeak lanean jarraitzea eta



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

azkenean Pinuetarako Plan Berezia onartzea ekarriko duelako. Bere ustez, Plan Berezi hori behar-beharrezkoa da, eta Iberdrolaren azpiestazioari dagokionez alkate jaunak aurrekontuei buruzko osoko bilkuran emandako erantzuna bezalako jarduerak burutzeko itxaropena daukate.

Eako Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak, honakoa adierazi du:

Onartzen ari dena positiboa dela adierazi du. Guztiek dakite ahal bezain urrun heldu dela, eta horrek auzoko pertsonekin ere harremanak izatea ekarriko du, nahiz eta auzo-elkartea ados dagoela jakin. Hala ere, auzokoek auzo-elkartea ez diren beste bide batzuen bidez adieraz dezakete euren iritzia; eta ikusi behar da hori zein modutan gauza daitekeen.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak, honakoa adierazi du:

Bere iritzia jada Hirigintza Batzordean puntu hau jorratzean azaldu duela adierazi du. Dena den, bat dator entzun dituen iritziekin, eta gehien bat Iñaki Gomendiurrutia Sainz jaunak esan duenarekin. Izan ere, espedientea nola hasi zen kontuan hartuta, konturatu dira hasieran Plan orokorragoa zela eta planteamendu irekiagoa zuela; gainera aukera eta alternatiba gehiago zeuden. Baina Plan horren ibilbidea nolakoa izan den kontuan hartuta (proiektuaren planteamenduen aurkako alegazio asko egon dira), Plana eremu zehatzago batera mugatuko da, auzoaren onespena lortzeko asmoz. Dena den, kontuan hartu behar da alegaziorik egin ez duten pertsonak Planarekin bat datozela, Gaztelubiderekin gertatzen den bezala, esate baterako. Ondorioz, hasieran planteamendu horrekin onartuko da: 270 aparkaleku sortuko dira, azkenean 240 izango direnak, gehi pilotalekukoak eta enparantzakoak. Plan horretan agertutako hobekuntza guztiak orain gauzatuko dira, baina horrek ez du esan nahi urte batzuen buruan Plana osatzeko aurrera egiten jarraitzeko aukera ez dagoela.

Amaitzeko, osoko bilkuran onartutako erabakia behin-behineko onespena denez, Bizkaiko Foru Aldundira bidaliko dela esan du, horrek behin betiko onetsi dezan. Gainera, organo hori izango da Plan Berezi gisa onartu ala ez onartzearen arduraduna, une honetan Plan Orokorraren aldaketa zehatz gisa agertzekotan, espedientea hasieratik berriro egin beharko litzatekeela.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketari eta Plan Bereziari buruzko alde garrantzitsu bat inork horren kontra bozkatuko ez duela dela adierazi du; bigarrenez, esan du aurreko astean bera eta lehenengo alkateordea Pinueta auzoko Auzo-elkartearen ordezkariekin bildu zirela, eta auzokoek osoko bilkura honetan onartu beharreko planteamenduekin bat datozela adierazi zutela. Hori aurrerapauso handia da. Beraz, lur azpiko aparkalekuaren eskaintzari eta hiri espazio eta berrikuntzari dagokienez hobekuntza nabarmena dakarren planteamendu hau onartuko da hasteko. Dena den, ez dio uko egiten gaia lantzen jarraitzeari eta guztien artean alternatiba berria aurkituz gero, hori aurrera eramateari.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hemezortzi boto izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak, bileran dauden PSE-EE-PSOeko hiru zinegotzianak, PPko lau zinegotzianak eta Eako zinegotziarena. Abstentzioak bi izan dira, IU-EBko bi zinegotzianak. Ondorioz, udalaren osoko bilkurak **gehiengoz erabaki du** HAPO aldatzeko espedientea behin-behinean **oneste**a, HAPON Pinueta hobetzeko plan bereziko aurreikuspenak sartzeko.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

3.- PINUETA AUZOA HOBETZEKO PLAN BEREZIA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA. 2004ko maiatzaren 11n Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 366/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak 2004ko maiatzaren 5ean hartu zuen 72. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko zerbitzu teknikoek euren ustez, espediente honen ezaugarri diren gertaera gogoangarri hauen berri eman dute:

- **2003ko otsailaren 20an**, osoko bilkurak hartutako 5. erabakiaren bitartez, hasieran onetsi zen Pinueta auzoa hobetzeko Plan Berezia.

Plan berezia hasieran onesteko agiriaren oinarritzko ildoak honako atal hauetan laburbildu daitezke:

- Lamiako-Txopoeta esparruan jarraitu zen prozeduraren antzera, hemen ere plan nagusian lurzoruko 2 esparru berri sortuko dira, 11 A (sendotutako Pinueta) eta 11 B (Pinueta hutsik) izenekoak; banaka errazago kudeatu ahal izateko.
- 11B esparruan 64.019 m²ko azalera sortu edo berriz urbanizatuko da.
Pribatizatu daitezkeen hiru lur-zati proposatu dira eta lur-zati horietan hiru eraikin berri egingo dira, A, B eta D eraikinak. Esparru horretan gainera aparkaleku, etxebizitza eta ekipamendu erabilerak ezarriko dira.
“A” eraikina Gaztelubide kalean dago, mendiari kendutako zati batean. “B” eraikina Langileria kaleko 192an dago, lehen industri eraikin bat zegoen toki horretan eta eraikin horrek BS+1 zituen. Esparruaren beste aldean “D” eraikina dago mendiko lurra eta Bizkaia kaleak bat egiten duten tokian eta kale horretako 6. eraikinaren aurrean hain zuzen ere. Esparru honek mendiko lurra hartzen du.
- Eraikin berrien inguruan eta Langileria kaleko 202an dagoen etxearen lur-zatian berdegune lau berriak egin dira.
Oinezkoentzako bidea egin da, Lapurdi kalearen atzealdean hasi eta mendia inguratzen du bide horrek eta Cervantes enparantzan bukatzen da; bidearen bidez mendiarena zen lurra irabazi da eta auzoan dauden bideak eta eraikinak oinezkoentzako bideekin lotu dira.
Hobekuntza horien bidez 1.360 m² handituko da Cervantes enparantzaren atzealdea eta 4.023 m²ko azalaren ondoan enparantza berria egingo da.
Auzoko kirol ekipamendu moduan enparantza berriaren ondoan frontoia egitea proposatu da.
Auzoa eta Gaztelubide kalea bi mailadiren bidez lotuko dira. Mailadi horiek esparruaren alde banatan jarriko dira eta oinezkoentzako bide berria eta Gaztelubide kaleko espaloiak lotuko dituzte. Horrez gain, jarduketa esparruaren iparraldean, harmailadia eta arrapala daude eta horrek igarobidea eta han dagoen oinezkoen bidea lotzen ditu.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Horrela ba, espazio libreek osatutako esparrua egingo da; esparruaren azalera 38.415 m²koa izango da eta horietako 14.829 m² oinezkoentzako erabiliko dira. Esparrua osatuko duten erabileren artean bi enparantza sortuko dira; gainazalean dauden aparkalekuak eta tailerren zati bat kenduko dira eta hortik lortutako lurra eta mendiari kendu zaiona gehituz gero umeentzako joko berriak, ekipamenduak, egoteko tokiak eta berdegune lauak egin ahal izango dira bertan.

- “A” eraikina, beheko solairuan 1.742 m² ditu; hona hemen eraikinaren ezaugarriak:
 - * Eraikinak sotoa + erdisotoa + beheko solairua ditu; eraikina garajeak egiteko baino ez da erabiliko.
 - * Egoiliarrentzako 244 aparkaleku egingo dira, guztira 5.680 m²ko azalera izango dute.
 - * 1.742 m²ko estalitako azalera; esparru horretan enparantza egingo da.

- “B” eraikineko beheko solairuaren azalera 426 m²koa izango da eta eraikinak honako ezaugarri hauek izango ditu:
 - * Eraikinak beheko solairua eta beste 4 solairu ditu eta bertan etxebizitzak, trastelekuak eta merkataritza lokalak daude.
 - * 12 etxebizitza ditu eta etxebizitzaren azalera guztira 1.530 m²koa da.
 - * Beheko solairuan merkataritza lokalak daude eta azalera guztira 381 m²koa da.

- “D” eraikinak beheko solairuan duen okupatutako azalera 1.692 m²koa da; hona hemen eraikinaren ezaugarriak:
 - * Beheko solairua + beste 5 solairu ditu eta bertan aparkalekuak, etxebizitzak, trastelekuak, eta gizarte eta kultur ekipamenduak egingo dira.
 - * 30 etxebizitza daude eraikinaren aurrealdean eta azalera guztira 2.747 m²koa da.
 - * Beheko solairuan gizarte eta kultur ekipamendua dago eta solairu horren azalera, guztira, 716 m²koa da.
 - * 216 aparkaleku daude eraikinaren atzealdean eta horiek betetzen duten azalera, guztira 6.947 m²koa da. Eraikinak bi arrapala independente ditu, bat igotzeko eta beste bat jaisteko.
 - * Garajeetara Gaztelubide kaletik sar daiteke, sarbidea dago garajeen mendi-hegalaren erdialdean eta bide horretatik garajeen azken solairura hel daiteke.
 - * Auzotik aparkaleku berrietara sartzeko oinezkoen igarobidea dago.

Bestalde, Plan Berezia idatzi duen lan-taldeak adierazi du urbanizazio kostuak zehatz-mehatz aztertu dituztela eta ohartu direla kostua igo egin dela, batez ere han zeuden zerbitzuak (ur eta elektrizitate horniduraren sarea) desbideratu egin direlako; adierazi du, horregatik agertzen dela defizita ekonomia eta finantza aurrekontuaren azterlanean, gainera esan du defizit hori 3.000.000.- euro ingurukoa dela eta Udalak bere gain hartu beharko duela.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- **Alegazioak aurkezteko epea:** Alegazioak aurkezteko epea malgutasun handiz hartu zen hirigintzako agiri honek garrantzi handia daukalako auzoaren geroari begira. Epe horretan alegazio ugari aurkeztu ziren; Pinuetako Auzo Elkarateak batez ere egin zituen plan bereziko aurreikuspenen kontrako alegazioak.
- **2004ko martxoaren 17an** Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak egindako batzarrean, batzordeburuak batzordeko beste zinegotziei jakinarazi die auzokoak kontra daudenez gero, plana idatzi duen lan-taldeari konponbide bat diseinatu eta ebaluatzeko agindu zaiola; izan ere, konponbide horrekin lur-azpiko aparkaleku bat bakarrik egingo litzateke Langileria eta Gaztelubide kaleen arteko lotunearen mugakide den mendi-hegalean eta plan berezia hasieran onesteko agirian aurreikusi ziren gorakako eraikuntzak eta etxebizitzak kenduko lirateke. Hau da, tailerren eta hirugarren sektoreko jardueren eraikinak ez lirateke eraitsiko, baina bai desjabetuko litzateke Langileria kaleko 202 zenbakian dagoen higiezina.

Hori dela eta, aipatutako bileran, Kepa Arrieta jaunak, Estudio K Sdad. Coop. enpresaren plantilako bideetako ingeniariak eta agiria idatzi duen lan-taldeko arduradunak, Udalak eskatutako konponbidearen inguruko hainbat gorabehera azaldu zituen: 42 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zuten "D" eta "B" eraikinak kendu dira, eta horrek auzoko atzealdea, Artaza Finkaren mendi-hegalaren mugakide dena, urbanizatzeko plana bertan behera uztea dakar. "A" eraikinean egitea aurreikusi zen aparkalekuari eutsi zaio, beraz, lur-azpiko 261 aparkatzeko toki egongo dira. Egoitzazko aprobetxamendurik ez dagoenez, eragiketa Leioako Udalak diruz laguntzea proposatzen dugu; horrela ba, lurra eskuratu, desjabetu eta Langileria kaleko 202 zenbakian dagoen eraikinaren ekipamendu moduan jartzeko eta gainaldea urbanizatzeko (oinezkoentzako guneak sortu eta frontoia egitea) partidak Udalak bere gain hartzea proposatzen dugu. Udalak 1.473.000,00 euro kofinantzatu beharko litzukeela zenbatetsi dugu. Sustapen pribatua aparkalekua egiteak duen kostuz arduratuko litzateke; izan ere, partzelen salmentaren bidez finantzatuko litzateke hori.

Aipatutako Batzordean udalean ordezkariak dituzten talde politikoei alternatiba tekniko horren ale bana ematea erabaki zen.

Aipatutako aurrekariak oinarri hartuta, Batzordeburuak horren gaineko erabakia hartu behar zela adierazi zuen bere garaian, aurreko bilera batean eta bere ustez, bilera honetan erabaki bat hartu behar da udalaren osoko bilkuraren ebazpenaren bidez plan berezia behin-behinean onesteko espedienteari hasiera emateko.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak eztabaidatu beharrekoa eztabaidatu ostean, espedientea osoko bilkurari aurkeztea (behin-behinean onetsi dezan) eta Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza eta Udal Harremanen Sailera bidaltzea egokia dela erabaki du. Halaber, talde politikoei honako iritzi hauek eman dituzte prozedura-fase honetan, udalaren osoko bilkurako eztabaidan azalpen zehatzagoak emango badituzte ere:

- **EAJ/PNV:** Ados dago Plan Berezia idatzi duen lan-taldeak aurkeztutako azken alternatibaren edukiarekin.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- **PSE/EE/PSOE:** Une honetan aitortzen dute taldean ez dutela gaia eztabaidatu. Ondorioz, jakinaren gainean geratu direla eta euren iritzia osoko bilkuran azalduko dutela esan dute.
- **PP:** PSE/EE/PSOE talde politikoak izan duen jarrera berdina azaldu dute.
- **IU/EB:** Euren iritzia udalaren osoko bilkuran emango dute. Nolanahi ere, ordezkariak adierazi du alegazioen azterketa eta eztabaida egin beharko litzatekeela eta ez daudela ados udalak izandako horren jarrera drastikoarekin, auzoan egin beharreko jarduera berriak azalean adieraztera mugatu baita.
- **EA:** Alegazioak osoko bilkuran azalduko ditu, baina aurretik esan behar du alegazioen edukia aztertu nahiko lukeela.

Udalaren osoko bilkurak hartu beharreko erabakia hartu ondoren, alegazioak aurkeztu zituzten pertsona eta entitateei horren berri emango zaie.

Amaitzeko, Batzordeko idazkariak bileran dauden zinegotzietan azpimarratu die alegazio ugari egon direla eta horregatik ez dutela egoki ikusi udalean ordezkariak dituzten talde politikoentzako kopia bana ateratzea.

Edonola ere, agiria udaleko bulego teknikoko bulegoetan dago, nahi dutenek azter dezaten eta nahi dutenaren kopiak ateratzeko.

Gai honen behin-behineko onespena, aurreko irizpenean aipatutako HAPOnen aldaketa behin-behinean onestearen baldintzapean jarri da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hemezortzi boto izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak, bileran dauden PSE-EE-PSOeko hiru zinegotzianak, PPko lau zinegotzianak eta EAko zinegotziarena. Abstentzioak bi izan dira, IU-EBko bi zinegotzianak. Ondorioz, udalaren osoko bilkurak **gehiengoz erabaki du** Pinueta auzoa hobetzeko Plan Berezia behin-behinean **onestea**.

4.- 2003-12-31KO ONDASUNEN UDAL INBENTARIOA ONESTEA: 2004ko maiatzaren 18an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 395/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak 2004ko maiatzaren 12an hartu zuen 101. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Aztertu dira udal ondasunek 2003-01-01 egunean zuten egoera, sarrera, irteera eta amortizazioak eta 2003-12-31 egunean Udaleko, Udal Euskaltegiko eta Soinu Atadia Fundazio



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Publikoko ondasunek zuten azken saldoa. Horien laburpenak honako koadro hauetan zehaztu dira:

UDALEKO INBENTARIOA

IZENBURUAK	HASIERAKO SALDOA 2003/01/01	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZ.	AZKEN SALDOA 2003/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	62.203.835,59	5.111.886,90	245.607,03	399.981,76	66.670.133,69
Lur-zatiak	6.708.487,58	42.949,22	0,00	0,00	6.751.436,80
Eraikinak	20.046.659,80	2.133.648,71	245.607,03	278.907,59	21.655.793,89
Higiezinetakoa hobekuntzak	3.453.756,79	0,00	0,00	121.074,17	3.332.682,62
Instalazioak	100,00	0,00	0,00	0,00	100,00
Herri bideak	31.994.831,41	2.935.288,97	0,00	0,00	34.930.120,38
2. Benetako eskubideak	390.720,96	0,00	0,00	0,00	390.720,96
3. Higigarri historiko-artistikoak	3.756,35	385.175,43	0,00	0,00	388.931,78
4. Balio mugigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	316.895,43	0,00	97.806,91	1.152,77	217.935,75
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	1.986.041,91	467.994,35	181.891,18	182.759,84	2.089.385,24
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	501.046,45	0,00	0,00	0,00	501.046,45
GUZTIRA	65.402.296,69	5.965.056,68	525.305,12	583.894,37	70.258.153,87

EUSKARAREN ERAKUNDEA

IZENBURUAK	HASIERAKO SALDOA 2003/01/01	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZ.	AZKEN SALDOA 2003/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Lur-zatiak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Eraikinak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Instalazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. Benetako eskubideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3. Higigarri historiko-artistikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. Balio mugigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	60.566,43	12.012,63	0,00	7.332,13	65.246,93
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	60.566,43	12.012,63	0,00	7.332,13	65.246,93



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

SOINU-ATADIA FUNDAZIOA

IZENBURUAK	HASIERAKO SALDOA 2003/01/01	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZ.	AZKEN SALDOA 2003/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Lur-zatiak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Eraikinak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Instalazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. Benetako eskubideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3. Higigarri historiko-artistikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. Balio mugigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	209.879,35	11.491,86	0,00	19.410,48	201.960,78
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	209.879,35	11.491,86	0,00	19.410,48	201.960,78

Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudia onetsi zuen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 33. artikulua honakoa adierazten du: urtero egiaztatuko da inbentarioaren zuzenketa. Xedapen horren 34. artikulua dioenaren arabera, Inbentarioaren onespena, zuzenketa eta egiaztapena erabakitzeke eskumena duen organoa Udalbatzaren osoko bilkura izango da.

Luze aztertu dira 2003ko ekitaldian ondasun eta eskubideek izan dituzten era guztietako gorabeherak.

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio 2003-12-31ko inbentarioa zuzentzeari; bada, egoki iritzi zuen 2003-12-31ko inbentarioa zuzentzeari buruzko gaia osoko bilkuraren hurrengo bilerako aztergai zerrendan sartzea.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, **aho batez**, Ondasunen Udal Inbentarioaren 2003ko abenduaren 31ko zuzenketa onestea erabaki du, aurkeztu den terminoetan.

5.- AUKERA BERDINTASUNENKO PLANA ONESTEA: 2004ko maiatzaren 25ean Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 423/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Gizarte Ekintza, Osasun eta Lan Saileko Informazio Batzordeak 2004ko maiatzaren 19an hartu zuen 65. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Beatriz Resa Bardeci Aukera Berdintasuneko Programaren zinegotzi arduradunak, Leioa udalerrian egindako emakumezko eta gizonezkoen Aukera Berdintasunerako 1. Planaren berri eman eta onestea proposatu du.

Gizarte Ekintza, Osasun eta Lan Saileko Informazio Batzordeak egoki iritzi dio aurkeztutako proposamenaren aldeko txostena emateari.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA **jakinaren gainean geratu da** eta aste honetan, osoko bilkura egin aurretik, Gizarte Ekintza, Osasun eta Lan Saileko Informazio Batzordea berriro batzartuko dela adierazi du, gai hori berriro aztertzeko eta udalaren osoko bilkurari proposamena egiteko. ALKATETZA UDALBURUTZAK era bereko **dekretua eman du**.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Ondoren, Alkate-Udalburuak adierazi du gai honi buruz hitz egin duela talde politikoetako bozeramaileekin, eta hainbat eskari egin dutela proposamen hau sakonago aztertzeko eta beste helburu eta ekintza batzuk sartzeko. Hori dela eta, guztiak ados egonez gero, Aukera Berdintasuneko Plana onesteari buruzko espedientea mahai gainean utziko da, Gizarte Ekintza, Osasun eta Lan Saileko Informazio Batzordeak sakonago azter dezan. Horrela ba, eztabaida osoko bilkurak egingo duen batzarrerera atzeratuko litzateke.

Ondoren bozkatu egin da eta honako erabaki hau hartu da:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki** du Aukera Berdintasuneko Plana onesteari buruzko proposamena mahai gainean uztea; espedientea bidaliko zaio Gizarte Ekintza, Osasun eta Lan Saileko Informazio Batzordeari, hori aztertu eta ondoren proposamena egin dezan.

6.- LEIOAKO UDALAK ETA EUSKO JAURLARITZAKO GIZARTE GAIETAKO SAILAK 2003KO ABENDUAREN 10EAN SINATUTAKO HITZARMENAREN BOSGARREN KLAUSULARI JARRAIKI, PINOSOLOKO BABES OFIZIALEKO 3 ETXEBIZITZA UDALARENTZAT GORDETZEA.- 2004ko maiatzaren 25ean Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 424/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Gizarte Ekintza, Osasun eta Lan Saileko Informazio Batzordeak 2004ko maiatzaren 19an hartu zuen 66. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Udalbatza honetako presidentek jakinarazi du udalak erantzuna eman nahi diela minusbaliatu eta emakume taldeen Elkarteek egindako laguntza-pisuen eskaerei.

Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Leioako Udalaren artean sinatutako hitzarmenaren bosgarren klausularen arabera, Mendibile, Txorierra eta Pinosolo guneeetan babes ofizialeko etxebizitzak sustapenak adjudikatzeko, udal administrazio honek Babes Ofizialeko hiru etxebizitza gordeko ditu Pinosoko gunean; horiek jarraian adieraziko den honetarako erabiliko dira:

- Etxebizitza bi prekarioan lagako dira, bat AVIFES elkarteari eta bestea URIBE-KOSTA elkarteari; elkarte horiek minusbaliatu psikikoen arreta eskaintzen dute.
- Hirugarren etxebizitza ere prekarioan lagako da, Bizkaiko Foru Aldundiak tratatu txarrak jasan dituzten emakumeei uzten dien pisuen sarean sartzeko.

Horretarako, lankidetzak-hitzarmen egokiak idatziko dira goian adierazitako erakundeekin; etxebizitza horien erabilera eta gozamina euren gizarte-helburuak betetzearen mende egongo da eta, nolana ere, lehentasuna izango du ondasunak Leioako udalari itzultzeak.

Hiru etxebizitzak eskuratzeko kostu ekonomikoa Leioako udalaren konturakoa izango da eta, horretarako, aurrekontuko gordailu egokia ezarriko da.

Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari emango zaio, jakin dezan eta ondore egokiak izan ditzan.

Gizarte Ekintza, Osasun eta Lan Saileko Informazio Batzordeak egoki iritzi dio aipatutako etxebizitzak gordetzearen aldeko txostena emateari.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak, honakoa adierazi du:

Adierazi du ados dagoela aurreko osoko bilkuran, aurrekontuak azertzean, etxebizitzak gordetzeko onetsi zen erabakiarekin. Proposatutakoak baino etxebizitza gehiago gorde beharko lirakeela esan du, nahiz eta planteamendu hori 2004ko aurrekontua erabaki zuen osoko bilkuran egin eta onetsi behar zela uste duen.

Era berean esan du Batzordean ez zela ezarri zein elkarteri lagako zitzaizkion hiru etxebizitzak eta, horregatik, lagapenaren erakunde adjudikaziodunen izendapena osoko bilkura honetan ez hartzea eskatu du.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Hiru etxebizitzak udalak har ditzan eta ondoren irabazi-asmorik gabeko erakundeek prekarioan lagatzeko gorde dira. Elkarte horietako bik minusbaliatu psikikoei ematen diete arreta eta besteak tratatu txarrak jasan dituzten emakumeei. Hala ere, ez dute inolako eragozpenik lagapenaren erakunde adjudikaziodunen izendapena erabaki gabe uzteko eta, sakonago aztertu ondoren, beste osoko bilkura batean zehazteko.

Bukatzeko adierazi du erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari jakinarazi beharko zaiola, etxebizitza horiek udalarentzat gorde ditzan eta udal



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

honen eta Etxebizitza eta Gizartetako Sailaren artean itundutako hitzarmenari jarraiki zozketa bidez egingo den adjudikazio-prozeduratik ken ditzan.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak, honakoa adierazi du:

Ainara Urbieta EAJ-PNVko zinegotzia zoriondu nahi izan du, ahalegin handia egin duela uste duelako eta, bere ustez, poztekoa delako, etxebizitza horiek gordeta beteko diren hiru helburuek benetan merezi dutelako. Era berean, bere ustez ahalegina egin beharko litzateke, proposatu dituzten hiru pisuez gain beste pisu bat berezko larraldietarako hartzeko. Izan ere, oraintsu ezbehar bat gertatu da herrian (udalerriko familia bati etxea erre zaio) eta zorionez maiz gertatzen ez den gauza den arren, beste batzuetan ere etxeak utzarazi behar izan dira eta, ondorioz, beste nonbait hartu behar dute ostatu. Hala ere, berriro esan du pozik dagoela osoko bilkura honetan aurkeztu den proposamenarekin eta beren ustez oso positiboa dela.

Bukatzeko adierazi du IU-EBko bozeramaileak adierazi duen bezala, eurek ere proposatutako elkarte biek eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitz egin zela ulertu zutela batzordean, baina gaia irekita geratu zela, etxebizitzak beste elkarte batzuei laga ahal izateko. Horren harian esan du bere ustez Uribe Kosta elkarte hautatzeko arrazoiak daudela, eskuinaldeko adimen urrikoekin lan egiten duen elkarte delako; AVIFES elkarteari dagokionez, beraiekin hitz egin delako eta gehien behar dutenak haiek direla uste izan delako hautatu dela ulertu du; baina adierazi duen bezala, batzarrean ez zen horrelakorik erabaki, geroago zehazteko utzi zen.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Lehenengo eta behin esan du zorionak onartzen dituela Ainara Urbieta andrearen izenean; Gizartekintza Arloko presidente ona da, sentikortasun handia duelako. Bigarrenez, berriro adierazi du konpromisoa hartuko duela elkarteak izendatzeko gaia lotu gabe uzteko. Hala ere, hiru etxebizitzak gordetzeari buruzko irizpena hartu nahi izan du une honetan, Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailari jakinarazteko.

Era berean, Susana González Rómulo PSE-EE-PSOeko bozeramaileari esan dio Batzordean aztertu zirela aipatu dituen hipotesiak eta beste baliabide batzuetan pentsatzen dabilzala dagoeneko; horrenbestez, gai honetan lan egiten jarraituko da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, honakoa adierazi du:

Bere taldeak osoko bilkurara ekarri den proposamenari aldeko botoa emango diola aurreratu nahi izan du, baliabide garrantzitsua delako elkarteentzat eta tratu txarrak jasan dituzten emakume talde jakinentzat. Bere ustez honelako jarduerak oraindik ez dira nahikoak gaur egun dagoen eskari guztia estaltzeko, baina Pinosoloko sustapen honek eta ondoren egingo direnek ere, aukera garrantzitsua ekarriko dute udalerrira gehiago garatzeko. Hori dela eta, bere ustez ahalegin handiagoa egin daiteke dagoen eskaria hobeto estaltzeko. Horregatik uste du garrantzitsua den arren, ez dela nahikoa, batez ere udalak horrelako ekimenetarako erabil ditzakeen baliabideak kontuan hartuta.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Nolanahi ere, aurrekontuetan konpromisoa hartu dela eta konpromisoa betetzen jarraitzea espero duela adierazi du, gai honi buruz egin diren hausnarketak kontuan hartuta.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Leioan sustapen gehiago egitea espero du, horrelako aukera gehiago egon daitezen eta emaitza ona izan dadin bideratutako ahaleginak eginez.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran eta **aho batez**, Iñaki Gomendiourrutia IU-EBko zinegotziak eskatuta Alkateak egindako proposamena **onestea erabaki du**. Hona hemen zehaztasunak:

1.- Onetsi egingo da Pinosolo gunean eraikiko diren 100 BOE etxebizitzaren sustapenetik hiru etxebizitza gordetzea, irabazi-asmorik gabeko erakundeei prekarioan lagatzeko. Horietako bi minusbaliatu psikikoei arreta egiteko erabiliko dira eta hirugarrena tratatu txarrak jasan dituzten emakumeentzat izango da.

2.- Erakunde adjudikaziodunen legapenari buruzko izendapenari buruzko iritzia beste batean emango da, eta osoko bilkurak egingo duen beste batzar batean zehaztuko dira.

3.- Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari jakinaraziko zaio, hiru etxebizitza udalaren alde gordetzeko eta horiek zozketa bidez egingo den adjudikazio-prozeduratik kentzeko. Hori guztia 2003ko abenduaren 10ean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin sinatutako hitzarmenaren arabera egingo da.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

7.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2004-04-24TIK 2004-05-21ERA: Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkateak emandako dekretuen kopia eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopia, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

8.- PRESAZKO MOZIOAK

1. mozioa:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jaunak, **LEIOAKO UDALEKO ALDERDI POPULARREKO UDAL TALDEKO BOZERAMAILEAK**, hurrengo mozioa aurkeztu du osoko bilkurak eztabaida dezan, Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 97/3 artikuluan xedatutakoaren babesean.

MOZIOA

Ustekabean eta modu harrigarrian, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioen araubidea arautzen duen Proiektuaren testuaren zirriborroa



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

aurkeztu du; testu horretan xake-jokoa eta Nazioarteko Batzorde Olinpikoak (NBO), Kirol Kontseilu Gorenak (KKG) eta Eusko Jaurlaritzak berak unera arte kiroltzat hartutako beste kirol espezialitate batzuk ez dira kirol modalitatetzat jotzen.

Proiektu horri eustekotan, eta azkenean onestekotan, gure Autonomia Erkidegoan modalitate horiek kirol izaera galtzeak oso ondorio txarrak ekarriko lituzke kirol horiek Euskadin eta Bizkaian egiteko.

Horregatik guztiagatik, Udalak, herritarren ordezkariak diren aldetik, ezin dira geldirik geratu Eusko Jaurlaritzak egin nahi duen bidegabekeria horren aurrean. Horregatik zerbait egin ahal dute eta behar dute, eta behintzat, Eusko Jaurlaritzaren asmoen aurka daudela jendaurrean adierazi beharko lukete.

AURRETIK ESANDAKO GUZTIAGATIK, ALDERDI POPULARRAK HURRENGO ERABAKIA AURKEZTU DU OSOKO BILKURA HONEN AURREAN, HORI EZTABAIDA ETA ONETS DADIN.

LEHENENGOA. Leioako Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioen araubidea arautzen duen Lege-dekretuaren testuaren zirriborroa kentzeko eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari, gaur egungo testuari eutsi nahi badio.

BIGARRENA. Leioako Udalak Euskal Erakunde eskudunei eta bereziki Eusko Jaurlaritzari eskatuko die orain arte kiroltzat jo diren kirol modalitateen kirol izaerari eusteko. Halaber, eskatuko die Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioen araubidearen araudi berrian gaur egun NBO, KKG eta Eusko Jaurlaritzak berak aitortutako kirolen kirol modalitaterik ez baztertzeko.

HIRUGARRENA. Leioako Udalak eragindako federazioekin harremanetan jartzea erabaki du, gure laguntza eta elkartasuna eskaintzeko asmoz, baita neurriak udalerrian eragindako kirol klubekin ere.

LAUGARRENA. Leioako Udalak erabaki hau Eusko Jaurlaritzari, Eusko Legebiltzarrari, Bizkaiko Foru Aldundiari, eragindako federazioei, udalerrian eragindako klubei eta tokiko komunikabideei jakinaraztea erabaki du.

Jarraian alkate jaunak mozioaren premia bozkatzeko agindu du.

PREMIARI BURUZKO BOTAZIOA:

Lehenik eta behin, azaroaren 28ko 2.586/1986 Errege Dekretuak onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 91.3 artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, mozioaren premiari buruzko botazioa egin da.

Aldeko hemeretzi boto, bilerara bertaratutako zinegotzi guztiek emanak. Horren ondorioz, premia onetsi da.

Jarraian Alkate-Udalburu jaunak adierazi du EAJ-PNV, EA eta IU-EB alderdiek puntu horri dagokionez hurrengo mozio transakzionala aurkezten dutela:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

“Leioako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Kirol Federazioen araubidea arautuko duen Dekretu-proiektua egitean kirol modalitate eta gaien katalogoan gaur egun Euskal Kirol Federazioa duten modalitateak sar ditzala.”

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, honakoa adierazi du:

Bere alderdiak zergatik aurkeztu duen mozioa azaldu du: Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi diote aurkeztutako zirriborroa kontuan hartuta Kirol Federazioetatik kanpo geratuko liratekeen Kirol Federazioak kiroltzat hartzen jarraitzeko, garrantzi handiko zeregina burutzen baitute Euskadiren gizarte, prestakuntza eta hezkuntza ehunaren barnean. Nolanahi ere, Bizkaiko Batzar Nagusietan egun horretan bertan alderdi guztiek aho batez proposamen bat onetsi dutela esan du, xakeari (kirol hori aipatu da eta) eta Kirol Federazio horiek jarraitzeari laguntzeko. Berak uste du puntu horri buruzko adostasuna positiboa dela, eta beren ustez, EAJ-PNV, EA eta IU-EB alderdiek aurkeztu duten testua bere taldeak aurkeztu duen mozioaren ildotik doa, gehien bat. Hori dela eta, ez lukete inolako arazorik izango testu horren alde bozkatzeko.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak, honakoa adierazi du:

Bere taldeak aurkeztu den zuzenketaren alde bozkatuko duela adierazi du, eta harritu egiten duela bozeramaile guztiekin hitz egin ez izanak, guztien artean aurkezteko, gainera kontuan hartuta goizean alderdi politiko guztiek aho batez onetsi dutela, PPko bozeramaileak esan duenez. Nolanahi ere, garrantzitsuena hori onestea eta bere ustez Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendariaren oso oker larria izan dena konpontzea dela adierazi du.

Halaber, adierazi du bere alderdia neurri handian harrituta dagoela, mozioei emandako tratu ezberdina dela eta, edukia alde batera utzita. Izan ere, orain dela gutxi bere alderdiak oinarritzko errentari buruzko mozio bat aurkeztu zuen eta Alderdi Popularrak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak, esate baterako, hori Eusko Legebiltzarraren eskumena zela esan zuten, eta ondorioz, osoko bilkuran aurkeztea zentzugabea zela. Horregatik, uste dute gai guztiak tratatzeko ez dela zorrotasun bera erabiltzen. Gaur xakearen gaia aurkeztu da bileran sortu duen eztabaidagatik eta gaiaren garrantziagatik, baina, hala ere, beste gai batzuk bezain garrantzitsuak izan daiteke. Beraz, gai honetan Eusko Legebiltzarrari zerbait eskatzen bazaio, bere ustez beste kontu batzuetan ere hori egin daiteke, nahiz eta besteetan jarrera hartzea zailagoa izan.

Amaitzeko adierazi du bere taldea alde agertzen dela berriro esan nahi duela, xakea eta beste kirol mota batzuk Euskal Kirol Federazioetatik kanpo geratuko direla esateari gogorkeria irizten diote eta.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin adierazi du PSE-EE-PSOeko bozeramaileari barkamena eskatu nahi diola, bere okerra izan da eta. Izan ere, testua aurretik eman behar zion, eta hori dela eta, barkamena eskatu dio Alderdi Sozialistari eta Alderdi Popularrari.

Bigarrenez, aurkeztutako testu transakzionala aho batez onesten dela uste duela adierazi du.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, Osoko Bilkuran eta aho batez, EAJ-PNV, EA eta IU alderdi politikoek gaur egun Euskal Kirol Federazioa daukaten modalitateak kirol modalitate eta gaien katalogoaren barnean sartzeko aurkeztu duten **mozio transakzionala onetsi du**.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

2. mozioa:

EAJ-PNV, EA eta IU-EB alderdiek "Alderdien Legea" indargabetzeari buruz aurkeztu duten mozioa: EAJ-PNV, EA eta IU-EB alderdietako bozeramaileek mozio bat sinatu dute, EAJ-PNVko bozeramaileak aurkeztu duena. Honakoa dio, hitzez hitz:

1.- *Espainiako Gobernuari eskatzen diogu "Alderdien Legea" indargabetzeko beharrezko urratsak eman ditzala, eta ez horrek ezker abertzaleari zuzenean eragiten diolako, baizik eta uste dugulako lege horrek herritarren oinarrizko eskubideak urratzen dituela, herritarren ideia politikoak alde batera utzita.*

2.- *Alde horretatik, beharrezkoa da indargabetze hori premiaz egitea, bai HZK (Herritarren Zerrenda), bai Europako Hauteskundeetara ekainaren 13an bere burua aurkeztu nahi duen beste edozein alderdi politikok askatasunez egin dezan, eskatu beharko liratekeen berme demokratiko guztiak izanda.*

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak, honakoa adierazi du:

Mozioaren premia azaldu du, egun horretan bertan Auzitegi Gorenak gai horri buruzko autoa eman duela adierazita. Beraz, mozioaren premia auto horretan oinarrituta azaldu du.

Jarraian alkate jaunak mozioaren premia bozkatzeko agindu du.

PREMIARI BURUZKO BOTAZIOA:

Lehenik eta behin, azaroaren 28ko 2.586/1986 Errege Dekretuak onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 91.3 artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, mozioaren premiari buruzko botazioa egin da.

Aldeko hemeretzi boto, bilerara bertaratutako zinegotzi guztiek emanak.

Ondorioz, udalbatzak **premia onestea erabaki du**. Ondoren, gaia eztabaidatu eta bozkatzeari ekin diote.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Gai horri dagokionez, maiatzaren 17an Leioa Abian plataformako ordezkariak sinatutako idazkia aurkeztu zela adierazi du. Idazki hori Barne Araubideko Batzordeari bidali zitzaion, osoko bilkuran aurkezteko premisa gisa. Baina orain arte Batzordeak ez du gaiari buruzko irizpenik eman; hori dela eta, ezin izan da osoko bilkuran jorratu. Jarraian adierazi du nolana ere alderdi politikoek esku har dezaketela, eta Udalbatza honen Barne Araubidearen arabera, alderdi politikoek esku hartu ondoren, eta alkate jaunari eskatu ondoren, auzokoek ere parte har dezaketela gogoratu nahi duela. Horretarako, auzokoek nor diren eta zein gaitan esku hartu nahi duten azaldu beharko dute. Halaber, bilera amaitu ondoren, auzokoek esku hartu ahal izango dute, adierazitako baldintzak betez gero.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak, honakoa adierazi du:

Mozioaren xedapen-atalaren aurrekoa ez irakurtzea positiboa iruditu zaiola adierazi du, batez ere batzuetan aurreko zatiarekin ados egon ez delako, xedapen-atalarekin ados egon arren. Halaber, Alderdien Legearen helburuaren eta ondorioen aurka batzuk etengabe agertu direla esan du. Egun horretan, nahiz eta berandu izan, legearen ondorioak berriro sentituko direla esateko unea dela uste du, orain arte inolako debekurik izan ez dutenei eskubide



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

politikoak kenduko zaizkie eta. Eskubide guztiak erabili eta hauteskunde-zerrenda batean agertzen diren herritarrak modu arbitrarioan baztertuko dira, horietako inork gaur egun ez dituela galdu bere eskubide politikoak epaiaren edo antzekoaren bidez. Alde horretatik, Alderdien Legeak herrialde honek dituen arazoak konpontzeko baliogabea izaten jarraitzen du, eta une horretan HZ da lehenik eta behin ondorioak jasoko dituen. Bere ustez, herrialde honetako gainerako herritarrek ere ondorioak jasoko dituzte, HZren ondoren. Horregatik guztiagatik uste du Alderdien Legeari ezetz esan behar zaiola. Zerrenda hori beharrezko sinadurak bilduta eta baldintzak beteta aurkezten bada, eta parte-hartzaileek ez badituzte galdu beren eskubide politikoak, inork eskubideok arrazoirik gabe kentzeko eskubidea ez duela uste du.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, honakoa adierazi du:

Bere azalpena laburra izango dela adierazi du, beste aldi batzuetan luze eztabaidatutako gaia da eta. Bere alderdiak Alderdien Legearen aurrean duen jarrera ezaguna da jada eta alde horretatik, indarreko legeria eta epaiaren erabakiak errespetatu behar dira. Uste dute Alderdien Legea onestea onuragarria izan dela sistema demokratikoa hobeto ibil dadin, eta Lege horrek ez duela inola mugatzen sistema politiko eta demokratikoaren barnean ideia edo eskubide politikoak aurkeztea; alderantziz, erakunde terroristak defendatu edo babesteko sistema demokratikoz baliatzen diren erakunde edo alderdi politikoak egotea mugatzen du nolabait. Horregatik defendatzen dute Alderdien Legea, eta bere garaian, horren onspena ere bai. Gaur egun sistema demokratikorako oso onuragarria dela pentsatzen jarraitzen dute, eta Alderdien Legea oinarri hartuta une horietan hartzen diren eta etorkizunean agian hartuko diren epaiaren erabakiak errespetatu behar direla besterik ez du adierazi nahi.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak, honakoa adierazi du:

Bere hitzaldia laburra izango dela adierazi du, gai hori askotan landu baita, eta uste baitu pertsona guztien jarrera argi dagoela. Bere taldeak mozioaren alde bozkatuko ez duela adierazi du, epaileek esan eta egiten dutena errespetatu behar da eta. Horri dagokionez adierazi du bere alderdiaren ikuspuntutik Alderdien Legeak herritarrek dituzten eskubideak kentzeko demokrazian babesten jarraitzea eragozten duela, eta alde horretatik, uste dute zilegia dela eta egin behar zela. Era berean, epaileek eta auzitegiek esaten dutenaren zain egon behar dela esan du. Epaileek eta auzitegiek esaten badute Europako Hauteskundeetara aurkeztuko den zerrenda horrek, mintzagai daukagunak, legeei men egiten ez diela edo zerrenda demokratikoa osatzen ez duela, uste du erabakia errespetatu behar dela.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Mozioan eskatzen dena Alderdien Legea indargabetzea dela adierazi du; epaileei buruz ez da ezer aipatzen.

Eako Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak, honakoa adierazi du:

Eako jarrera denek eta aspalditik ezagutzen dutela adierazi du. Madrilgo Gobernuaren joerak orain dela gutxi aldatu direla kontuan hartuta, bere taldeak uste du gai horretan tematu behar dela, baita beste gai orokor batean ere. Hori azkena dela eta, kanpaina bat abiarazi dute José Luis Rodríguez Zapatero jaunari idazteko, bere legegintzaldia amaitu baino lehen Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak duten gatazka politikoa konponbideetan jar dezan. Horixe da EAren jarrera, eta uste du horretan tematzeko



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

unea dela, ez baita onargarria bizikidetzat demokratikoan pertsonen eskubide horiek deuseztatzea, beren eskubideen eskumena aitortuta duten bitartean.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak, honakoa adierazi du:

Berak ez duela azalpen potolorik emango adierazi du, mozioaren xedapen-puntuak argi daude eta. Antza, Herritarren Zerrenda delako koalizioa Hauteskundeetara aurkeztea eragozteko arrazoietak bat aurreko hauteskunde-prozesuetara aurkezten ziren Batasuna edo Euskal Herritarrok alderdietako kide batzuk orain HZko kideak izatea da. Gauza bera gertatzen zaie Aralarri eta EAJri: Galeusca koalizioaren zerrendaren barnean EAJren izenean doan laugarren pertsonak, José Antonio Urbiola jaunak, alegia, EGIrekin lan egin du, EAJtik irten eta Herri Batasunan sartu zen; Nafarroako Gobernuan lehendakariordea izan zen Herri Batasunaren aldetik; eta gero EAJn sartu zen berriro, gaur egun Galeusca koalizioan dagoela. Hortaz, Galeuscak eta Aralarrek hauteskunde horietan aurkezteko eskubidea badaukate, ezin du ulertu zergatik ukatu behar zaion eskubide hori HZri.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak, honakoa adierazi du:

Erantzuteko txanda erabiltzeko asmorik ez zuela adierazi du, baina EAJ-PNVko bozeramailearen esku-hartzeak horretarako motibatu duela.

Horri dagokionez, HB izenaz beti ezagutu den munduaren inguruan zegoen guztia gaur egun Aralarri edo Euzko Alderdi Jeltzalearen zerrendan agertzen den José Antonio Urbeola jaunari dagokiona izatea ez litzatekeela hain txarra izango adierazi du. Borroka armatuari eta hilketari mota guztiei berriaz uko egin izan baliete, hiltzailea nor zen kontuan hartu gabe! Uste du orain HBren munduaren barnean dagoena eta Aralar erkatzea ezinezkoa dela, ezin erkatuzkoak direla bi alderdiok, azken batean. Izan ere, Alderdien Legea abiarazi baino lehen, Aralar jada martxan zegoen eta bide ezberdina hartu zuen, borroka armatua eta ETaren hilketak gaitzesten zituela. Beraz, Aralar beste bide batetik doa, eta horregatik eredutzat hartu behar da. Edonor joan daiteke bide demokratikotik eta bere postulatuak defendatu; egin ezin dena hauxe da: beste bide batzuetatik joatea. Halaber, bere ustez alderdi batek edo erakunde batean dauden pertsonak ezin dute esan Al-Qaeda Madrilen atentatua egin zuenean zibilen aurkako atentatua zela, hil diren gizarte honetako pertsonak (kazetariak, epaileak eta politikariak) ere gizarte zibilean zeudela kontuan hartuta. Horixe da, hain zuzen ere, Aralar eta José Antonio Urbeola jaunaren (alde batetik) eta modu horretan pentsatzen jarraitzen duten beste pertsona horien (bestaldetik) artean dagoen ezberdintasuna.

Denak Aralarren bidetik joan izan balira, beren eskubide politiko eta zibil guztiak defendatzeko! Horri dagokionez, urtebetetik hona bera eta Udalbatzaren gainerako pertsonak lasaiago datozela osoko bilkuretara adierazi du, autora hurbiltzean ez baitute begiratu behar arrastoa egin dioten ala ez.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaz jaunak, honakoa adierazi du:

Bere hitzaldia laburra izango dela adierazi du, eta EAJ-PNVko bozeramaileak esandakoak hitz egitera bultzatu duela. Bere hitzaldia gehien bat Alderdi Sozialistako bozeramaileak esan duenaren ildotik joango dela esan du.

Irizpide bera aurkeztutako erakunde edo kandidaturei (esate baterako Aralarri edo Galeuscari) aplikatu dakiekeela adierazi du. Izan ere, ezin da iritzi berdina eduki HZ edo Aralarrez, Galeusca osatzen duten taldeez edo kandidatura ezberdinak osatzen dituzten pertsonen: pertsona horiek ETA erakunde terroristaren aurka behin eta berriz agertu eta bere ekintzak gaitzesten dituzten erakundeetako kideak dira. Jarrera horrek HZko kandidaturako kideek defenda ditzaketen ekintza edo postulatuetatik funtsean bereizten ditu.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Alde horretatik uste dute funtsezko, oinarrizko eta begien bistako ezberdintasuna dela, eta ezin dela alde batera utzi.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak, honakoa adierazi du:

Gaztelaniaz hitz egingo duela adierazi du, gainerako bozeramaileek ere gaztelaniaz hitz egin dute eta.

PPko ordezkariak ikusten dutena eta Aralarreko zein Euzko Alderdi Jeltzaleko kideak, eta kasu honetan José Antonio Urbiola jaunak, ikusten dutena ez dela gauza bera azaldu du. Izan ere, horiek esan lezakete konparaziozko iraina dagoela, ikusi ez arren. Baina hemen ikusten ari da, eta horregatik eskerrak eman nahi ditu beren abokatu defendatzaile bihurtu direlako. Hala ere, ez dute horrelakorik behar, beraiek ezberdintasun hori ikusten ez baitute.

Amaitzeko, pertsona horiek beren ideiak defendatzeko hauteskundeetara aurkezteko eskubidea ukatzea ez dela bidezkoa adierazi du. Uste badute gaizkileak direla, atxilotu, epaitu eta kartzelan sartu beharko dituzte; gaizkileak ez badira, ordea, beren ideiak defendatzeko hauteskundeetara aurkezteko eskubidea daukate, sistema demokratikoaren eta alderdien sistemaren ABCa da eta.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak, honakoa adierazi du:

Herentzia bitxien sistema onartzen jarraitzeak harrিতa uzten duela adierazi du; herentzia horiek ez dira genetikoak, jakina, horiek oso hautemanerrazak dira eta; CESIDera deitu, eta argi eta garbi esaten dute.

Herentzien beste motari dagokionez, erakunde batetik bestera herentziak egon daitezkeela esan du, baina zaila dela erakunde batetik herriko hauteskunde-plataforma batera egotea. Beraz, pertsona berak bitan egon izana aipatzen da berriro. Hori arrazoitzeko, gaztetako okerre helduzkoak, eta ez egindako delituei. Egia esan, pertsona horiek ez dira epaitzen, ezta gaitzesten ere. Hori dela eta, berak galdetzen du ea noiz iraungitzen diren iragandako oker horiek, Alderdien Legeak orain eskatzen duen on ustea berriro eduki dezaten.

Horri dagokionez, hainbat ministro ohi eta ezagunei buruz hitz egin daitezkeela esan du: batzuk gaztetan "troskistak" izateaz harrotzen ziren, eta ez zitzairen ezer gertatu. Halaber, politikari askok ez zituzten GAL eta errepresio frankista gaitzetsi, eta hor jarraitzen dute lasai-lasai. Beraz, berak jakin nahi du zenbat urte igaro behar diren norbait Batasunako zerrenda batean agertu zenetik, eskubide politikoak berriro aitortzeko, ezin baita horrela jarraitu beti.

Egoerak aldatzen direla ulertzen du, eta herrialde honetarako hobe dela kale borroka egonean egotea edo desagertzea. Berak ulertzen du hobe dela herrialde honetan hilketarik ez egotea, beste herrialde batzuetan, adibidez Iraken, horrelakorik ez egotea ere askoz hobe dela ulertzen duen bezala.

Egoerak berdintsuak ez direla adierazi du, baina gaur egun dauden egoerak dira guztiak; dena den, horrelakorik ez badago, askoz hobe izango da guztientzat. Hori inork ez du inoiz zalantzan jarri; haiek ere ez. Beraz, berriro galdetu du ea noiz arte jarraituko duen egoera horrek; agian gure buruari errua egotzi beharko diogu eta horrela ezin izango da inor bereizi. Horrela guztiak eskubide zibil eta politiko guztiak erabiltzen hasiko lirarteke berriro.

Amaitzeko esan du ezin dela ados egon Alderdien Legearekin, ez baita bidezkoa iruditzen, ezta legezkoa eta zientifikoa ere.

Eztabaidatu ondoren, mozioa bozkatu egin da:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, Osoko Bilkuran eta aldeko hamahiru botoren (EAJ-PNVko hamar zinegotziek, IU-EBko bi zinegotzik eta EAko zinegotziak emanak; osoko bilkuran dauden PSE-EE-PSOeko hiru zinegotziek, eta PPko hiru zinegotzik kontrako botoa eman dutela) **gehiengoaz**, EAJ-PNV, EA eta IU-EB alderdi politikoek "Alderdien Legea" indargabetzeari buruz aurkeztu duten mozioa **onetsi du**.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK

1. galdera:

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Arturo Aldecoa Ruiz PPko ordezkariari esan nahi dio guztiz errespetatzen duela, ondo hezitako gizona baita; gainera, uste du pertsona ona dela, eta demokratizat jotzen du. Izan ere, Leioan estreinatzeaz dagoen "Führer" izeneko antzezpenari buruz zinegotzi horrek egin duen galderaren gainean egunkarian argitaratutako artikulua harritu du. Leioako alkatea eta antzeppen hori biltzen duen Umore Azokaren arduraduna den aldetik, komunikabideek itaunketa egin diotela sentitu du, obra antzeztu baino lehen nolabaiteko zentsura egin da eta. Berak ez du oraindik ikusi antzezpena, baina aktoreekin hitz egin du, eta horiek esan diote ikuskizuna ona omen dela, eta asmo onez eta antzerti-kalitateaz eginda dagoela. Beraz, Aldecoa jauna zinegotzia denez, antzezlana ikustera bultzatzen du, uste baitu "Diktadore nagusia" izeneko film harrigarria egin zuen Charles Chaplinen moduan, aktore horiek ere maila egokia izango dutela. Egunkariaren bidez itaunketa egin zaiola sentitu duenez, modu horretan erantzutea erabaki du, beraiek beti egiten duten moduan, hau da, maitasunez, egiten duela adierazita.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, honakoa adierazi du:

Alkate jaunak agertutako maitasuna eskertzen duela adierazi du, baina ez dela beharrezkoa demokratizat hartzen duela esatea: ziur dago eta badaki demokrata dela, udalbatzaren gainerako kideak bezala.

Gaiari dagokionez, antzeppen baten egileak zein edozein antzerki-talde nahi dituzten obrak antzeztu, diseinatu eta prestatzeko eskubidea daukatela. Ez dago aurreko zentsurarik, noski, baina egileak edo antzerki-taldeak ikuskizun zehatzerako, leku zehatzerako eta egun zehatzerako egokitzeak jotzen dituzten obrak prestatzeko eta hori burutu ahal izateko finantziario zehatza bilatzeko eskubidea duten moduan, berak eskubidea dauka zenbait gai antzezlaren muiin gisa erabiltzeak sortzen dion iritzia ez isiltzeko. Eta laburki azalduko du:

Diktadore nagusiaren parodia egitean, Charles Chaplinek maisu-lana gauzatu ez ezik, totalitarismoa bezalako gai zail bat hartu eta modu umoristikoan eta tragikoan heltzeko adibidea eman ere egin zigun. Adibidea da imita daitekeelako, baina aldi berean, adibide horrek argi erakusten du oso zaila dela hori egitea, ez baita maila horretako beste parodiarik egin zinemaren historia osoan. Baina Auschwitz, Treblinka edo Mahausen bezalako kontzentrazio-esparruetan sei milioi eta erdi gizaki sistematikoki sarraskitzea (hura bezalako arraza-jazarpenik ez dela historia osoan egon), herritarra, zinegotzia eta batzarkidea den aldetik, uste du ezin dela antzeztu dibertimendu eta adibidearen erdibidean, hori jasan duen jendea oraindik bizirik egonda, gainera. Eta horren arrazoia emango dio.

Historia unibertsalean zorigaitzoko gertaera asko egon dira. Egia esan, historia



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

unibertsalak ezbehar, gelonia eta gaiztakerien batura ematen du batzuetan, eta horietako batzuk urrun daude denboraren ikuspegitik. Horiek antzeztuta ikusten dira, eta ondorio moralak edo entretenimendua atera daitezke, horixe baita antzerkiko, zinemako eta telebistako zenbait antzezpenen helburua. Baina hurbileko ezbeharren kasuan kontuz ibili behar da, pertsonak atsekabetzen direlako. Izan ere, oraindik badaude pertsona asko, kasua zuzenean ezagutu dutenak edo gurasoak edo senideak kasu horretan edo antzeko jazarpen-egoeretan izan dituztenak. Arazo horiek haragi bizitan daude oraindik, eta ez da horiekin jolastu behar. Egileak munduko eskubide osoa dauka egokituz jotzen duen antzezpena egiteko; publikoak ikusi eta horri buruzko iritzia emango du. Baina bera herritarra, zinegotzia eta batzarkidea den aldetik, uste du zenbait gai islatzeko hobe dela urte batzuk igarotzea, modu horretan bideratu ahal izateko, oraindik haragi bizitan daude eta. Gure herrian biztanleriaren erdia zerrenda beltz batean jarrita eta gizarte honetako kargu publikoen erdia eskoltarekin bidaiatu eta bizi izanda egiten den jazarpen sistematikoa testuingurutik pixka bat aterata dagoela iruditzen zaio. Beraz, hobe da berrogeita hamar urte igarotzea, eta orduan agian antzezpena oso ondo egongo da. Aktoreek antzeztuko dute eta baliteke arrakastatsua izatea eta oso ona izatea, baina gaia ez da egokia.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Nolanahi ere, Gaztela eta Leongo taldeak egindako gonbidapena berriro aipatu dio, nahi izanez gero antzezpena ikus dezan. Halaber, adierazi du gizakien onerako obra miresgarriak, hala nola "Schlinderren zerrenda" edo orain dela gutxi egindako "Piano-jolea" edo "Bizitza ederra da", egin dituzten pertsonak egon direla. Baina hobe da gaia horrela uztea.

Jarraian alkate jaunak adierazi du publikoaren artean dagoen pertsona batek hitza eskatu diola, eta une horretan baimena emango diola hitz egin dezan. Ondoren, pertsona horrek hitz egin du.

Eta gaueko bederatzia direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,